



IÑIGO URKULLU LEHENDAKARIAK BIKAIN ZIURTAGIRIAK BANATU DITU

Aurten, 65 enpresa eta entitatek eskuratu dute BIKAIN ziurtagiria, aurreko urteetako batez bestekoaren bikoitza baino gehiago

Iñigo Urkullu lehendakariak BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiriak banatu ditu gaur Gasteizko Europa Jauregian. Orotara, **65 erakundek jaso dute ziurtagiria**: horietatik 41ek goi-mailako urrezko BIKAIN egiaztatu dute; 20k tartekoa den zilarrezko ziurtagiria eta 4k oinarritzkoa. Kanpo-ebaluazio horiek Bikain Ebaluatzaileen Klubeko 158 kidek burutu dituzte. Ekitaldian, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburu Cristina Uriartek, Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak, eta Confebaskeko presidente Roberto Larrañagak ere parte hartu dute.

250 pertsonatik gora elkartu dira gaur Gasteizko Europa Jauregian arratsaldeko 19:00tan hasita egin den BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren banaketa ekitaldiaren 8. edizioan. Gasteizera bertaratu dira, besteak beste, BIKAIN Ziurtagiria eskuratu duten erakundeetako ordezkariak, Ebaluatzaile Klubeko kideak, enpresaburu zein kooperatiba elkarten goi-ordezkariak, eta baita administrazioetako ordezkariak ere.

Jauzi kuantitatiboa 2015ean

2015eko Bikain Ziurtagirik jauzi kuantitatibo handia dakarte ziurtagiri hauen zortzi urteko historiarako. Datuei erreparatu besterik ez horretaz jabetzeko: 65 enpresa eta entitate ebaluatu dira aurten, eta 65 horiek jaso dute ziurtagiria. Inoizko kopururik altuena, eta are esanguratsuagoa kontuan izanik aurreko zazpi urteetan batez beste 28 enpresa izan direla urteko ziurtagiria eskuratu dutenak. Bikoitza baino gehiago, beraz, aurten. 158 ebaluatzaile ibili dira ebaluatzaile lanak egiten aurten, iaz baino 20 gehiago. Dagoeneko 550 lagun dira Bikain Ziurtagirien Ebaluatzaile kluba osatzen dutenak. Guztiek ere *musutruk* egiten dute lan.

Zortzi urte hauetako ibilbidean, 261 dira Bikain Ziurtagiria eskuratu duten enpresa eta erakundeak. Horietan lanean ari diren langileak berriz, 28.400 inguru.

Bikain berritua

Berritzailea izan zen Bikain bere sorreran bertan ere, euskara enpresetako kalitate prozesuekin eta kudeaketarekin lotzea ekarri baitzuen. Aurrerantzean ere berritzaile izaten jarraituko du, Bikain berria eta berritua, enpresetara ez ezik administrazio eta erakunde publikoetara ere zabalduko baita. Horretarako, bi mundu ezberdin sistema bakarrera ekarriko dira. Ebaluazio prozesu bera izango da esparru batean zein bestean. Ponderazioa zorrotzagoa izango da administrazioentzat, legeria bera kontuan harturik. Bestalde, Bikain berrituak, ebaluazio sistema arinagoa izango du.

Bikain Kanpo-Ebaluazioak Eusko Jaurlaritzak antolatzen ditu Euskal Bikaintasunerako Euskal Fundazioarekin lankidetzan, eta erakunde batean euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa neurtzera daude zuzenduak. Hori horrela, aurten parte hartu duten erakundeek dagoeneko jaso dute ebaluazio-txosten bana beren indar-gune nahiz zer hobetuen berri zehatza ematen diena, lortutako puntuazio eta horren



araberako ziurtagiriarekin batera; hori guztia, lan-ibilbide desberdinetako ebaluatzaile talde batek eginga, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zuzendaritzapean.

Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria ofiziala, publikoa eta doakoa da, eta hiru maila hartzen ditu bere baitan: oinarrizkoa (200 puntu gutxienez); tarteko maila edo zilarrezkoa (400 puntu gutxienez) eta goi maila edo urrezkoa (700 puntu gutxienez).

Gaurko ekitaldian ziurtagiria jaso dutenen artean, ohi bezala, orotariko enpresa eta erakundeak egon dira: industria nahiz zerbitzuetakoak, garraioetakoak, hezkuntzakoak, administrazioetakoak... Horiek guztiek egiaztatu dute euskara txertatua dutela euren eguneroko jardueran, euren kudeaketan.

Kanpo-ebaluazio bat egin ondoren eskura daitekeen ziurtagiria da BIKAIN. Ebaluazio horretan EMEK (Erreferentzia Marko Estandarrak) zehaztutako alorretan euskararen presentzia, erabilera eta, oro har, kudeaketa neurtzen da. Ebaluatzen diren alorrak hauek dira:

- Erakundearen komunikazioa eta irudi korporatiboa
- Kanpo harremanak
- Barne harremanak
- Hizkuntza kudeaketa

Kanpo-ebaluazio horiek Bikain Ebaluatzaileen Klubeko kideek egiten dituzte era altruistan. Ebaluatzaile horiek lan-sektore askotarikoak dira, baita eskala diferentetakoak ere, zuzendaritza-mailakoetatik hasi eta tartekoetatik jarraituta, maila ohikoagoetaraino.

Bikain Ziurtagiriaren zuzendaritza organoetan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea batzordeburu dela, EAEko enpresarien elkarteak (CONFEBASK, SEA, CEBEK eta ADEGI), Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, hiru foru aldundiak, Euskalit, Euskaltzaindia eta EUDEL biltzen dira.

2015ean urrezko Bikain ziurtagiria lortu duten entitateak:

- 11BARRI S.L.
- Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
- Atoan Koop. E.
- BALEIKE Kultur Elkarte
- BILBO HANDIA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.
- DHK-DURANGALDEKO HERRI KOMUNIKABIDEAK
- DOBERA EUSKARA ELKARTEA
- DONOSTIAKO HEDABIDEAK S.M.
- DONOSTIAKO KOMUNIKABIDEAK E.M.-GAZTEZULO ALDIZKARIA
- DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.
- ELGOIBARKO IZARRA EUSKALTZALEON TOPAGUNEA ELKARTEA
- ERRENTERIAKO UDALA
- EUSKAL EDITOREA S.L.
- GEU GASTEIZ EUSKALDUNA ELKARTEA
- GOIERRIKO HEDABIDEAK S.L.
- GOIHERRIKO IKUSKARI SL



- HIRUKA KOOPERATIBA ELKARTEA
- HORBEL SOZINETATE KOOPERATIBOA
- INFO-AIARALDEA KULTURA ETA KOMUNIKAZIOA ELKARTEA
- ITZARRI AISIA SL
- JESUS MARIA DE LEIZAOLA FUNDAZIOA
- KARKARA TALDEA KULTUR ELKARTEA
- KURUTZIAGA IKASTOLA
- LABORAL KUTXA. URRUNEKO BANKA
- LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK E.M.
- Mondragon Assembly Koop. E.
- OIARTZUALDEKO HEDABIDEAK S.L.
- OÑATIKO UDALA
- ORERETA IKASTOLA KOOP. E.
- ORTZADAR S.M.
- OTARI Ingeniería del Agua, S.L.
- PIL-PILEAN KULTURA ELKARTEA
- TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK S.L.
- TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.
- TOTOAN, TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA
- TTAKUN KULTUR ELKARTEA
- UROLA KOSTAKO HEDABIDEAK S.L.
- UROLALDEKO KOMUNIKABIDEAK SL
- UZTARTZEN EUSKARA ELKARTEA
- ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
- ...ETA KITTO! Euskara Elkarte

Zilarrezko Bikain ziurtagiria jaso dutenak:

- ANTZIBAR SAU
- AUTORIDAD PORTUARIA DE BILBAO
- BANKOA, S.A.
- CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.
- EDERFIL BECKER KOOP. E.
- EIBARKO UDALA
- EKIN AUTOAK S.A.L.
- GEROZERLAN. OTEZURI ZENTROA
- URIBE Erakunde Sanitario Integratua (OSAKIDETZA)
- GUREAK BERDEA S.L.U.
- IZFE S.A. Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte-Sociedad Foral de Servicios Informáticos
- KARITATE ALABAK-BEGOÑAKO ANDRA MARI IKASTETXEA
- LABORATORIO DE AGUAS Y RESIDUOS S.L.
- LATZ S. COOP.
- MAKINA ERREMINTAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA/FUNDACIÓN PARA LA FORMACIÓN TÉCNICA EN MÁQUINA HERRAMIENTA (IMH)
- MATIA FUNDAZIOA. IZA ZENTROA
- OARSOALDEA GARAPEN AGENTZIA
- SAN JOSE JESUITAK IKASTETXEA
- SORALUCE S. COOP.
- GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA

**Oinarrizko Bikain ziurtagiria eskuratu dutenak:**

- SPRI, Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A.
- PESALUR, S.A.
- GUREAK GARBITASUNA S.L.U.
- GUREAK ZERBITZUANITZAK S.L.U.

Gasteizen, 2015eko abenduaren 21ean